



Xuxen – OpenOffice/LibreOffice

xuxen.eus

Azken eguneraketa: 2015/11/09

Xuxen OpenOffice/LibreOffice



Edukiak

1.Eskakizunak.....	4
1.1Sistema eragilea.....	4
1.2Beharrezko softwarea.....	4
2.Instalazioa eta desinstalazioa.....	5
2.1.Instalazioa.....	5
2.2.Desinstalazioa.....	7
3.Zuzentzaile ortografikoaren erabilera.....	8



Xuxen zuzentzailearen azken bertsioa erabiltzeko behar den informazioa biltzen du eskuliburu honek. Dokumentu honetan, instalazioa eta desinstalazioa burutzeko jarraitu beharreko pausuak xehetasunez azaltzeaz gain, Xuxen 5 zuzentzaile ortografikoa OpenOffice eta LibreOffice aplikazioetan erabiltzeko laguntza emango dio erabiltzaileari.



1. Eskakizunak

1.1 Sistema eragilea

Xuxen 5 zuzentzailea instalatzeko beharrezkoa da ordenagailuan ondorengo sistema eragileetako bat izatea: Windows, Linux edo Mac OS.

1.2 Beharrezko softwarea

XUXEN OpenOffice/LibreOfficek ez du eskakizun berezirik, nahikoa da OpenOffice/LibreOffice 2.1 edo berriagoren bat instalatua edukitzea.

2. Instalazioa eta desinstalazioa

2.1. Instalazioa


Xuxen 5 instalatzeko beharrezkoa izango da instalatzailea xuxen.eus webgunetik deskargatzea. Horretarako -> http://xuxen.eus/static/installer/xuxen_openoffice_libreoffice.oxt.

Behin instalatzailea gure ordenagailura deskargatuta, gehigarri hau (xuxen_openoffice_libreoffice.oxt) instalatzeko bi aukera ditugu:


- OpenOffice/LibreOfficeko menu barran, aukeratu “Tresnak > Hedapenen kudeatzailea...”.
- Sakatu “Gehitu” botoia eta jaitsitako xuxen_openoffice_libreoffice.oxt ireki.

edo

- Egin klik bikoitza jaitsitako xuxen_openoffice_libreoffice.oxt fitxategian.
- Instalatu nahi duzula baieztatu “Ados” botoia sakatuz.



Irudia 1: Hedapenen kudeatzailea




Irudia 2: Xuxen 5 gehigarria instalatu da

Instalazioa ondo burutu bada, Tresnak > Hedapenen kudeatzailea atalean ikusiko dugu instalatu berri dugun Xuxen 5. Orain, OpenOffice/LibreOffice berrasieratu beharko duzu erabiltzen hasteko.

2.2. Desinstalazioa

XUXEN 5 desinstalatzeko OpenOffice/LibreOfficen menuan Tresnak > Hedapenen Kudeatzailea... aukeratu eta Xuxen 5 gehigarriaren ondoan sakatu “Kendu” botoia. Sakatu “Ados” hedapena kentzeko.




3: Gehigarria kentzeko leihoa

Hori eginda, Xuxen 5 guztiz desinstalatu da ordenagailutik.


3. Zuzentzaile ortografikoaren erabilera

Xuxen OpenOffice/LibreOffice erabiltzen hasteko lehenik hizkuntza aukeratu behar da. Horretarako menuan Tresnak > Aukerak... aukeratu. Bertan Hizkuntza-ezarpenak > Hizkuntzak aukeratu eta *Dokumentuen hizkuntza lehenetsia* > Mendebaldekoa jartzen duen tokian Euskara aukeratu.



4: Hizkuntza aukeratzeko menua


Dokumentu berri bat irekitzen dugunean kontuan izan beharko dugu momentuan aukeratuta dugun hizkuntza euskara dela. Horretarako, OpenOffice/LibreOfficen beheko menu-barran euskara ikusi beharko dugu, eta horrela ez bada bertan klik eginez aldatu.



5: Dokumentuaren hizkuntza

Behin hizkuntza aukeratu ondoren, dokumentu batean zerbait idazterakoan, gaizki dauden hitzak gorritz azpimarratuta agertuko dira. Okertzat ematen dituen hitzak gorritz azpimarratzen ditu eta saguaren eskuineko botoiarekin klik eginda azpimarratutako hitza aldatzeko proposamenak ematen ditu.

Hortik deskargatzen den fitxategiak OXT formatua du eta gehigarri gisa instalatzen da bulegotika pakete horretan.



6: Proposamenak aukeratzeko menua